

KH-7

Ez egotzi gaiztakeriari ergelkeria esplikatu dezakeena. Handi jendea etortzen zaizu burura, komiki satirikoe-tan gizon zahar gizen trajedun erretzailak izaten direnak, edo mila karanbola xebreraren ondoren ipurdia aukeri bigun batean fortunatu zaion aldi baterako politikoa, ez jakin, zalantzati, bel-durrez, legegintzaldiak irauten dituen lau urteen erdiak non dagoen jakiteko behar dituenak, eta falta zaizkion beste biak kalte handirik egin gabe handik nola alde egin pentsatzeko, jende hori etortzen zaizu burura, automatikoki; badakizu, txi-

mua zenbat eta gorago, uzkia orduan eta ageriago.

Baina ispiluak daukazu etxean, ez begiratzen saiatzen zaren arren, eta garbiketa egitea tokatzen da noizean behin, eta azalera metaliko distirantak zeure ergelkeria itzultzen dizu, handituta, okertuta, bihurrituta, produktu miragarriren batekin zeure bizitzako erdoka guztia kendu asmoz dena emanda ari zarenean, izerditan, kanpoan eguzki gozo, barruan musika ilun, zeure ergelkeria madarikatzen, zeure zabarkeria eta errazkeria, zeure ausardia falta eta izurako joera. Alaitasunik gabe, boron-daterik gabe, argitasunik gabe, maitasuna urri; horrela iragan zen lurrean bizitzeko emana zitzaigun denbora.



Jira
Xabier Gantzarain

Titanic

Esatzen dute kapitainak ez zuela abiatu moteldu. Gizakiok beti behar dugu errudun bat, eta, *Titanic*-en kasuan, kapitaina izan zen itsasontzia izozmendiaren kontra eraman zuena. Harengan utzi du historiak ardura. Gure lagun batek esango lukeen moduan, «zerbaitegatik kobratuko zuen besteek baino gehiago». Baina ez ote zuten presio handiegia? Pentsa ezazu inoiz izandako itsasontzirik dotoreena, handiena, luxuzkoena itsasoa zeharkatzea zihoala eta foku guztiak hari begira zeudela. Egia da orain dela ehun urte ez zirela hainbeste foku egon-

go, baina zeudenak kapitainak gidatu behar zuten ontziari begira zeuden. Hollywoodek nahi duena esango du, baina *Titanic*-era sartu ziren bidaiari gehienak aberatsak zirela esango nuke; eta diru asko ordaindu zuten itsasoa zeharkatzeko. Haurdun omen zegoen emakume batek erizaina eta etxeko zerbizari bi eraman omen zituen berarekin. Horrek asko esaten du haren maila sozialari buruz, eta besteak ere antzera ibiliko ziren. Beraz, ardura guztia bati eman bazaio ere, nire Onintza erromantikoak esaten dit kapitainari ez ziotela beste aukerarik eman. Abiadura mantsotu izan balu arriskuaren aurrean, ordaindu zutenak kezatu egingo zitzaizkion. Orain ere ez du beti kapitainak agintzen.



Bira
Onintza Enbeita

Zuzendaria:

Martxo Ugalde kultur parkea.

Zuzendariordea:

Iñaki Petxarroman

Edizio arduraduna:

Andoni Alvarez

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea:

Bidera

publizitatea

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

0712184059

Egoitza nagusia:

Martxo Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoa:

berria@berria.info

Publizitatea:

publi@bidera.eu

Harpidetza saila:

(0034) 943-30 43 45

Date:

15/04/2012

Exemplaire:

2.734

Editeur:

Euskal Editorea S.L.

Directeur de publication:

Martxo Ugalde

Comission paritaire:

0712184059

Delegation Labour:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

Lapurdi: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratxeko Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

nafrarrea@berria.info.

Preso politikoak

Jon Mirena Landa

Zigor Zuzenbideko irakaslea

Txori Barrote kasuaren ustezko apologia delitua dela eta (299/2011ko apirilaren 25eko Auzitegi Gorenaren Epaia) Auzitegi Nazionalak eta Gorenak dagoeneko «preso politiko» esamolde bera erabili izana argudio eta aztarna bezala erabili nahi izan zuten ETaren jardura goratzen ari zela frogatzeko ahaleaginean. ETAkideak preso politikoak direla esatea horien jardunari garrantzia kentzea —justifikatzea— omen da Auzitegien aburuz. Baina urrunago joan da Espetxeetako Administrazioak preso politikoak norbere burua izendatzea eragotzi nahi izan duenean ETAkideetako batzuek beraien eskutitzak idazteko orduan. Bi kasuak desberdinak dira; batean, preso politikoa adiera erabiltzearen ondorioa penala zelako (apologia delitua leporatuta) eta bestea esku-hartze administratiboa *soilik* delako (eskutitza bidali ez). Baina azken buruan bietan ondorio zigorgarria dakar *preso politiko* esalmoldea erabili izanak. Eta hori al da estatu demokratikoan gizalegezkoa?

Preso politiko esamoldeak, Frantziako iraultzaz geroztik, ukitu edo konnotazio positiboa zekarren, egiten zen ekintza, indarkeriazkoa izanik ere, ulertze aldera; izan ere, egoera politiko injustua iraultzeko egitekotan, motibazio altruistatik egiten baitzen. Motibazio onak bidezkoak zuten nola bait indarkeria. Frantziako iraultzak lehengo erregimena, erregimen injustua gainditu nahi zuten, berdintasuna, askatasuna eta elkartasuna ezartzeko asmotan.

Errege absolutuak ez zituen errespetatzen menpekoak, agindupekoak: haiek torturatzen zituen, heriotza zigorra aplikatzen zien, klase eta pribilegio desberdintasunak sustatuz. Burgesiak, horren ondorioz, begi onez ikusten zuen errege eta nobleen kontrako *aitzineko erregimena* iraultzeko indarkeria politikoa, eta handik eta gaurdaino indarkeria politikoa erabiltzen denean zuzengabeak diren botereak borrokatzeko *ondo ikusia*-edo egoten zen.

Aipatu oinarri historikoaren ildotik, preso politikoa, zentzu heretsiagor batean, erabiltzen da, nazioarteko giza eskubideen estandarrei helduta, estatu demokratikoe-tan delituztat jo ezin diren ekintzengatik kartzelan daudenak izendatzeko. Edonor bere iritzi edota ideologia hutsa adierazteagatik ezin da kartzelatu izan, esaterako, eta, hori dela eta, kartzelan sartzen badute, kontzientzia-presu edota preso politikoa bilakatzeko da, zentzu erreibindikatioan. Kasuotan preso *politiko* da, Estatuak edo botereak nahi ez duen politika egiten duelako, iritzi edo ideologia-askatasuna modu ez-zilegitan murriztuz.

Amnesty International-ek jarraitzen duen ikuspegi horretatik, ETAkide asko eta askoren kasuan preso politikoak ez dira: alegia, giza eskubideen estandarretatik begiratuta, egiten duten ekintza, hala nola norbait tiroz edota lehergailu bat bere auto azpian jarrita hiltzea edo norbait bahitzea, delituzkotzat jotzekoa da eta. Eta delituzkoak jotzekoak dira, bai estatu demokratikoetan bai ez-demokratikoetan. Areago, aipatu ekintzak zibilen kontrakoak edota umeen aurkakoak direnean, guda-egoera formalean ere guda-krimenak lirateke, bere zigorra ere ekarri beha-

rrekoak. Beste kasuetan, oster, ETAkideetat jo izandakoak preso politikoak izan daitezke. Gogora dezagun 18/98 makroprozesuaren kasua edota *Egunkaria* auzia. Baina baita Otegiren kasua bera ere. Bertan hainbat lagun ETAkideak omen ziren beraiek jakin barik, «dena ETA» delako doktrinaren zurrumbilaoan. Bai Alderdien Legearen, bai Auzitegi Nazionalaren ikuspegiak, askotan, ETAkidearen

kontzeptua zabaldu dute, iritzi edota ideologia hutsa kriminalizatu arte, tartean benetako delituzko ekintzarik izan gabe. Epaileek modu formalean ETAkide deitzen dieten batzuk, kondenatu dituzten batzuk, hortaz, preso politikoak izan badira, beste batzuk, oster, ez dira.

Esanik esanda, preso politikoak izan ala ez izan giza eskubideen estandarretatik begiratuta, ETAkide guzti-guztiak motibazio politikoa duten presoak dira. Esamolde horrekin indarkeriazko jardueren atzetik dagoen motibazioa da azpimarratzen dena, motibazio hori dela eta hiltzen, bahitzen, bonbak jartzen, tiroak ematen dituenaren balorazioa zabalago gertatzen dela.

Pentsa dezagun IRA erakundearen jardunaren. Horren kasuan, ingelesez presoak beti «motibazio politikoko presoak» (*politically motivated prisoners*) deitua izan dira, beraien burua izendatzeko eta askotan ere beraiek ez baizik eta beraien aurka ziren esparru ideologikoetakoan aldetik. Esamolde horrekin ez du halaberrez balorazio ona ekartzen egindako ekintzengatik, baina agerian uzten du fenomenoaren izaera politikoa, nire aburuz, ukazezina izaten dena bai IRA bai ETaren kasuan.

Bukatzeko, ordea, hasieran esandakora itzuli nahiko nuke. Preso politikoa —kontzientzia-presu gisa ulerturik— izateak ala ez izateak ez du esan nahi zilegi denik horren erabilera zuzenbide penal edo zigorgarriaren bitartez debekatzea. Bai Espetxeetako administrazioak bai Justizia Administrazioak esamolde horrekin ondorio zigorgarriak lotu dituztenean urrunegi joan dira, Estatu demokratikoetan onartu behar diren eztabaidak horrela murriztearen bitartez. Preso politikoan inguruko eztabaida politikoa da, eta horri argudioekin —ez zigorrekin— erantzun behar zaio demokrazian sinestekotan. Espainiako Estatuak hitzei kartzelaz aurre egin nahi izanez gero, bukatuko du preso politikoa gehiago sortzen: hau paradoxa!